

# MUNBERRI

**Mundu berri baten ikaskuntza.**



Endika Ruiz de Arbulo, Laaraj Hajar, Laia Mateo eta Haizea Vicente  
STARTINNOVA proiektua, Vitoria - Gasteiz  
1 batxillergoa, 2022/2023

## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Hezkuntza sistemak eskaintzen ez dituen hainbat eduki landu eta irakasteko asmoz jaiotzen da gure Munberri elkarteak. Administrazio publikoarekin kudeaketa ezberdinak nola egiten ikasteko aholkuak eta laguntza eskeiniko diegu gure bezeroei. Lehen sorospenak edota defentsa pertsonalerako kurtsoak ematen ditugu, beste batzuen artean. Gizartean inoiz lantzen ez diren zenbait tabu gaiak ere normalizatzeko formakuntza eskeiniko dugu. Laburbilduz, mundu berri eta gizarte integratu eta garatu bat lortzeko ikastaroak eskeiniko ditugu.

Gure helburu nagusia egunerokotasunean ezinbestekoak diren jakinbeharrekoak gure herritar gazteen artean zabaltzea da, eskoletan lantzen diren beste gai orokorragoekin bat egiteko eta etorkizunerako gizarte oso eta garatuago bat lortzeko. Beraz, gure elkarteak, eskoletan eta akademia gehienetan ematen diren eduki kurrikular arruntak ez ditugu landuko, bizitzaren egunerokotasunerako funtsezkoak eta oinarrizkoak diren beste eduki praktikoa baizik. Izan ere, gure gizartearen ongizatea eta formakuntza erreal eta praktikoa bilatzen dugu. Pertsonak laguntzea dugu helburu, dituzten jakintza-gabeziak betetz.

Gainera, enpresa honetako langileak profesional formatuak dira. Haiek, formakuntza profesionala izan dute, hau da, ez dira ausaz aukeratutakoak. Beste alde batetik, langileek jasotako mota guztietako informazio guztia ez du iñork gehiago eskura izango, informazio guztia babes dago gure enpresaren eskuetan.

Adibidez, horrelako kurtsoak eskeiniko ditugu:

1. Errentaren aitortzea nola egin zein hipoteka bat nola eskatzen ikasi, haien eskaintza edo oferta ulertezinekin ez engainatzeko.
2. Ume bat izan eta gero nola hezitzea eta zaintzeko jakin behar den guztiari buruzko azalpenak emango ditugu. Umea izatearen estresari eta arazo mentalei aurre egiten eta behar bezala neurtzen eta kontrolatzen ere ikasiko dugu.
3. Sukaldaritza orokorra landuko dugu; hala nola postreak, eta janari elaboratuak zure lagunak edo zure familia harritzeko.
4. Jozteko klaseak eskainiko ditugu. Gutxinaka galtzen ari den praktika polita da eta gure asmoa hori ez gertatzea da. Beraz, praktika hau nola egiten eta garatzen ikasiko dugu.
5. Defentsa pertsonala eta lehen sorospenak landuko ditugu. Defentsa pertsonalerako taktikak eta gure burua babesteko modu desberdinak ikasiko ditugu arriskua sahiesteko. Beste aldetik, lehen sorospenak ikasiko ditugu arrisku momentuetan zer egin eta nola kudeatu ikasteko.
6. Gai tabuak landuko ditugu, oso garrantzitsuak direlako eta haietaz hitzegitea eta gehiago jakitea ezinbestekoa iruditzen zaigu, hala nola, heriotza, abortoa eta osasun mentala ere.
7. Ziber arazoak ekiditeko kurtsoak ere eskainiko ditugu. Gaur egun teknologiak eragin handia du eta gure gazteen artean arriskuak ezagutaraztea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Zibersegurtasuna, Sare Sozialak, Sare Sozialak eta Osasun Mentala, Ziberjazarpena eta Bideojokoen inguruko gaiak landuko ditugu.